

Noaqua!!!

H A M A B O S K A R I A

2002ko otsailaren 8a VII.urtea

Usurbil, 129. zenbakia

**Aginagako frontoia, Zubieta
eta Kultur Etxea izango dira
2002ko lehentasunak**

USURBI L

GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

*Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71*

Egin zaitez Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

**%10eko
beherapena**

Aldatz kirolendena
Mahuka
jantxidenda
Pauma Haur
jantziak
Truke jantxidenda
Usurbil optika
denda
Intza ileapaindegia

**2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua**

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea

ARAETA Jatetxearen

10. URTEURRENIA **Otsailak 16**



Ongi etorri Araeta Jatetxera!

Araeta jatetxeak bere 10. urtebetetzea ospatuz antolatutako arkume-jan afarira gonbidatzen zaituzte, aldi berean bezero guztien fideltasuna eskertuz.

✗ Araeta jatetxeak ezkontza, bazkariak, jaunharteak edota edozein ospakizunetarako gune aproposa eskaintzen ditu.

✗ Karta zerbitzua egunero

✗ Asteartetik ostiraletara, biak barne, eguneroko menuak: 10,85 euro

✗ Asteartetik ostegunera, biak barne, gaueko menua: 10,85 euro

Menua

Aperitiboa
Odolkia azarekin

Txorizoa Parrilan

Makailu tortila

Arkumea (nahi adina)
Letxu eta tipula entsalada
Panadera patatak

Gazta, menbriloa eta
intxaurreak

Txotx eta kafea

Prezioa: 19 euro (BEZa barne)

PROGRAMAZIOA:

- 21:00etan Arkune afaria
- 22:30tik 00:30era trikitixa
- Afarira datozen guztiei Cava gonbidatuko zaie.

Zubieta

Telf; 943 36 20 49- 36 66 42
www.araeta.com

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Imanol!**
Urtebetze egunarekin batera etxeokok **Imanol** agurtu nahi dute. Muxu handi bat berarentzat!



Zorionak **Garazi!**
Otsailaren 5ean 10 urte egin zituen. Etxekoen eta lagunen partez zorionak eta muxu handi bat!



Zorionak **Goizane!**
Otsailaren 11n 5 urte beteko dituenek, zorionak eta muxu handi bat familiaren eta bereziki Maddiren partez!



Zorionak **Inaxio!**
Ondo pasa dezazula zure urtebetze egunean, etxeokok.



Zorionak **Andoni!**
Otsailaren 6ean 3 urte egin zenituenek, etxekoen eta lagunen partez zorionak eta muxu asko!



Zorionak **Leire!**
Urtarrilaren 31n egin zenituen 15 urte. Muxu handi bat etxekoen eta familiaren partez!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: otsailak 22.

Ekartzeko azken eguna: otsailak 15.

Jaiotzak

Markel Otaegi Zabaleta
2002-01-18
Galtzaragaina

Intza Gutierrez Barkaiztegi
2002-01-18
Aginaga

Antton Iturain Garcia
2002-01-23
Aginaga

Hildakoak



Inaxio Zabala
2002-01-24
Txoko Alai

Jose Olasagasti
2002-01-24
Arratzain Berri

Noaua aldizkaria!
Bordaberri 3
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zer-baitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitaratu emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarteak 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzara 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Otsaila

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

● Hurrengo alea

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

2002. urteko aurrekontuak onartu berri dira.



Hontza aterpeaz

Joxe Mari Izeta

Gizakia Helburu-ko kidea

Hontza aterpearen inguruan, abenduaz gero izan diren gertakizunen aurrean, sentimenduak golpatzen zaizkit, pasatzen ari denaren ulertu nahia mugatuz. Egia esan, Zamakola auzoko zenbait bizilagunek hartu duten jarrera ez dut ulertzen, ez dut ulertu nahi.

Azken hamar urte hauetan, nire eguneroko lanean, zientzok drogazale ezagutzea tokatu zait, eta lehen itxura fisikoa gainditu ondoren, beti sufrimenduz gainezka dagoen pertsona bat aurkitu dut drogazale horren atzean. Bakartia, askotan gaixo, ahuldua eta inoren begirune goxotik urrun, inguruko bazterketa jasaten duena.

Guzti hau zergatik? Arazo bat duelako, arazo larria bai baina arazo bat... drogaren hatzaparretan erori izana. Hortik aurrera gizarte honek, guk alegia, lagundu izan diogu drogazale horri, berez berea duen bakardadea eta sufrimendua areagotzen, gainditu ezin duen arazo horren aurreran hurbildu beharrean urrunduz, gureganatu beharrean baztertuz.

Nahi eta nahiezko bidelagun duen droga horrek eta egoera horren aurrean gizarte honek hartu izan dituen neurri kaxkarrak, areagotu egin dute sufrimenduari. Askotan drogazale horrek bakardade horretaz gain, kale gorria ezagutu du, kartzela jasan, hiesa harrapatu edota arazo psikologikoen gurpilean sartu.

Zorionez, askok, lehenago ez bada geroxeago, egin die aurre drogak eta inguruak sortutako egoerei. Asko gure artean ditugu berriz; eta lortu ez dutenak? Baztertu? Kale gorria kondenatu, gau baten hotzak edo gaixotasunen batek, azken igurtzia ematen dien bitartean. Zamakola auzoan programa publiko eta integratzailea jarri nahi izan dute martxan. Kostata baina hor darraite, drogazaleengandik gertu, hauen lehen beharrei erantzun nahian. Ez, ez zaie kapritxorik eskaintzen, besterik gabe dutxa bat hartu, kafesne edo salda bero bat gorputzera-tu, ohe batean lo egin, arropak aldatu eta garrantzikoena, norbaite begirune goxoa eta konprentzioa jaso.

Inork inori uka al diezaioke hau? Ukatzea edo oztopatzea gutxi balitz, juxtu juxtu, erdi gaixo Hontza aterpera hurbiltzen diren drogazaleak jipoitu?

Beraz, nire kritika zorrotzena egiteaz gain, haserako esaldiari eusten diot: ez dut ulertzen eta ez dut ulertu nahi. Beldurtu aldiz beldurtzen naute Zamakola auzoan izan diren jarrera hauek. Beldur naiz gure artean ere loratu ote daitezkeen. Agian ez drogazaleen inguruan, baina bai etorkin edota beste talde gutxituen inguruan. Kontuz! Ez gara Zamakola auzokoak baino hobekak.


Bukatzeke nere zorionik beroenak Bilboko Caritasekoei eta horrelako programak ahalbidetzen dituzten gutzietan.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Isabel Aginaga

Aurrera doaz udaletxe ondoko etxebizitzak. Dagoeneko desager-tu da urtetan Sindikatuaren egoitza izan zena. Bertako kontuak ondo baino hobeto dakizki Isabelek.



Pena eman al dizu sindikatuaren egoitza bota izanak?

Pena? egia esan, ez. Han "de pena" ginen. Itu-teak genituen eta erabat utzita zegoen. Penarik ez dut, leku hobera etorri garelako. Hura leku onean zegoen, zentrikoa zen baina zeharo zahartuta zegoen eta gero deskargatzeko pro-blemak izaten genituen. Txokoaldekoek protesta pixka bat egin dute autobusa hobeto geratzen zitzaielako. Baina orain jendea kotxean mugitzen da eta oraingoa leku lasaiagoa da.

Bariantea egin baino lehen mugimendu handia al zen?

Ni kale horretan jaioa naiz, orain Andazpe elkar-tea dagoen lekuan eta garai batean hanka ateratzerik ez genuen izaten.

Lanetik gertu bizi zinen, beraz?

Aurrena sindikatu parean zegoen drogeria bate-an egin nuen lana. Bitxia da baina nire nagusia nire egungo lanpostua betetzen zuen. Solteroa zen eta ezkondu eta haren emaztea drogerian hasi zen lanean. Baina ez ginen entenditu biok eta nik drogeria utzi nuen. Orduan nire nagusia sindikatutik atera eta drogerian hasi zen lanean, bere negozio propioa baitzen. Eta ni lanik gabe nengoela etxera dietu zidaten ea kooperatiban lan egin nahi nuen. Orduan etxera deitzen zuten, lehengo kontuak dira horiek.

Zaila egin al zitzaizun Sindikatuko lanera egokitzea?

Zaila egin zitzaidan hau zegoen bezala zegoela-ko. Nik kontabilitatea eta ez nekien; ni zerbitzatu eta kobratzera sartu nintzen. Gero Lurgintzarekin hasi ginen lanean eta orain lasaiago bizi gara. Gerra aurretik autofinantziazio zerbitzuak ere eskaintzen zituen kooperatibak, kartilak zeuzka-ten eta hemen sartzen zuten dirua eta kreditu bat ematen zien. Geroztik ez, hori aspaldiko kon-tua da. Urte oso onak bai, baina txarrak ere pasa ditugu.

Lehen mugimendu gehiago zegoen, ezta?

Guk gehiago saldu genuen urteak izan ditugu. Baina arazoa orokorra da. Baserri-lana galtzen ari da. Gazteak jada ez dute lan hori hartzen.

Ordenadorerik eta ez zenuten izango?

90etik aurrera. Idatz-makinarekin ibiltzen ginen orduan. Garai batekoa ikusiko bazenu... oraindik jasota daukat.

Zer moduz moldatzen zara euroarekin?

Kontatzeko eta ondo, baina dena pilatu zaigu: prezioak bitan jarri beharra, egoitza berrira etor-tzea, dena batera tokatu zaigula. Oraindik pre-zio gehienak bitan ditugu. Hori baino gehiago fakturak berrikustea da lana. Ez dugu eurotako erreferentziarik, soilik pezetatakoa... Datorren urtean lehenago arrankatuko dugu. Gaur ere pezetak ekarri dizkirate baina nik lehen egune-tik euroak bueltatu ditut.

Imanol Ubeda

ERRAZKIA

Igeltseritza orokorra

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santuenea Mob: 629 42 05 65



WITZANGA

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

Telf: 943 83 00 72

SANTUENEA

Isaak Muñoz



Oria ibaiko bazterrak

Oraingoan ere kexu batekin natorkizue. Ez da hain harritzekoa, izan ere, azkenaldi honetan, kexuak baititut hizpide kroniketan. Baten batzuek ere fama txarra jarriko didatelakoan nago.

Denok badakigu gure zikinke-riak komunetik behera joaten direla, hots, pixa, kaka, mendiko urak eta abar materia, eta hauek guztiak Oria ibaian dutela beraien ibilbidearen amaiera. Gainera, hustubide horietako bat zubi bertatik ikus dezakegu, Aialde Berri sagardotegiaren aldamenean. Hustubide honekin ez dago arazorik. Baina, bai ordea, eskubaloi zelaiaren parean dagoenarekin.

Auzotar askok ez du jakingo gune honetan hustubide bat dagoenik, ez baita hain erreza hau ikustea.

Hustubide honek ez du Oria ibaian bukaera; lbaira iritsi baino 10 metro inguru lehena-go baizik. Ondorioz, bertan putzu handi bat egin da eta ez nintzateke bertan sartuko edozer gauzagatik ere.

Baina, okerrera uda iristean izaten da. Neguan hotzak direla eta, ez dago batere arazorik, baina udan, eguraldi onaren etorrera-

rekin batera, sekulako kiratsa zabalitzen da lau haizetara.

Egoera honek denbora dezente darama horrela, eta seguraski, beste horrenbeste jarraituko duela, inork konturik hartzen ez badio behintzat.



URDAIAGA

Alazne Begiristain



Kritikatu eta kritikatu

Igandea da. Arratsaldeko 3:30ak dira eta 20 minutu barru herrira jaitsi behar dut, baina alde aurretik kronika idatzi beharra daukat, berandu baino lehen Noaua!ko buzoian uzteko.

Orri zuriaren aurrean nago, boligrafoa eskuan, baina ez dut gairik (harritzekoa den moduan). Bi pentsamendu datorkizkit burura; gure auzo honetan ez da ezer gertatzen edo ni ez naiz ezertaz enteratzen. Bietako bat!

Eta zer idatzi ez daukadanik, kritika bat egitea otu zait. Oraingoan, beti zerbait esateko duen irakurle goari doa zuzenduta. Behin baino gehia-

gotan haserretu egin izan naiz, honako adierazpenak entzutean; *"Noaua!ko txoko horretan idaztea zaila al da ba?"* edota beste hau ere; *"zer da ba hori? neronek ere egingo nuke. Finean, ezer ez esateko: udazkenean hostoak erortzen direla, negua iritsi dela, parkean jendea dabilela... ba! a ze txorakeria!"*

Askok hala ez pentsatu arren, ez da hain erraza bi astetik behin gure auzoan gertatzen denarekin txoko hau betetzea. Hemen inguruan, ni baino gehiago enteratzen denen bat baldin badago, kontatu diezazkidalda kontutxoak. Askotan, gai faltan gabilta, eta zuen

ideiak, emendakinak edota zuen iritziak entzuteko prest gaude kronistok.

Gainera, orain aukera duzue zuen kritikak egiteko. Izan ere, Noaua!ko azken alearekin batera aldizkariaren inguruko galdetegi bat iritsi baitzagu guztioi etxera. Bertan daukagu Noaua!ri gure aportazioak egiteko aukera bikaina. Azkenean, guztiok egiten baitugu hamabostero-hamabostero aldizkaria, ahalik eta gogo handienarekin.

Beno, besterik gabe, arestian aipatu ditudan irakurleak animatuko nituzke, "hain erraza" den lan hau egiteko bere auzoko kronista izateko.

KALEZAR

Joseba Pellejero



Suteak negu betean

Kaixo irakurleok, hemen gator urte berria agurtuz. Gabonak joan ziren, lanbor hotsak ixildu ziren, urteari orria erori zitzaion eta otsaila hasieran iñauteri festak bazter askotan.

Pixkanaka pixkanaka, egunak badoaz aurrera baina danbor hotsarekin batera sagardotegiak ireki zituzten jende askoren pozerako. Saisar aldean izango da jendea bertan egindako milaka eta milaka litro sagardoan gazi-gozaok dastatzeko prest. Aurten behintzat haragiaren bueltan sortu zen desmadrerik ez dago, jendeari ahaztu zaio lehengo urtekoa.

Bestalde, gaia aldatuz, azken aste hauetako eguraldia ikusirik ez da harritzekoa suteak egotea, Adarra, Buruntza Mendizorrotz mendietan eta ez nolana hikoak, ordu dezentez egon ziren pizturik, eta suhiltzaileak izango zuten lana. Nahiz urtarrila epel joan kontuz ibili, esaerak esaten duen bezala, "Kandelari bero negua gero" eta esaerak esaten badu egitik izango du.

Azkenik, agurtu nahi nuke aldizkaria sortu zenetik aurrera eta atzera ibili den eta lana utzi berria duen gure herriko kazetaria eta ongi etorri bat Tolosatik datorren berriari. Ea besteak adina lan egiten duen. Agur.



ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



Iñauteriak gainean

Aurten goiz-goiz datoztenez Iñauteri jaiak, jendea, eta batez ere gazteak, pozik ikusten ditugu. Nobedade berri, edo itxura aldatzeko asmoarekin, jantziak prestatu mozorro modura, eta ondo pasatzeko gogoarekin, herritik atera ezker ere; Tolosa edo Donostialdera hurbilduz gero, izango da zer ikusirik, arlo horretan, noski.

Santa Ageda ere hemen izan dugu eta gure haurrak hor ibili dira makila eskuan abesti politak abestuz.

Pasa ditugun hamabost egunetan udaberriko eguraldia izan dugunez, gure inguruetakoz zelai, zuhaitz eta txokoetan,

dena naturak aurreratua. Ikusten dugu Jose Deunaren lorek ere ondo apaintzen dituztela gure bide bazterrak, baina kontuan hartu beharko dugu gure aurreko zaharren esaldi bitxia:

"kandelario bero negua gero, kandelario otz negua motz".

Hala ere, animatu eta ondo pasa. Eguraldi ona nahi dugu egun hauetan, baina ura ere falta dela diote gure nekazariak eta betiko kakoa, nola konpondu!

Atxegaldeko Aldatz ondoko iturria ere lehortuta dago. Azken bi urteotan, eta baita txoko honetan behin baino gehiagotan aipatu duguna, baina oraindik lortu ez dena: ur emankorra jartzea. Horren zaila ote da hau!



TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Irisasiko erreformategiko zurrumurrua

Zurrumurruak, ez baldin badi-
ra konfirmatzen, ez omen
dira notizi. Hala esaten dute,
behinik behin. Baina niri Irisasi
etxeari buruzko zurrumurru bat
iritsi zait. Badirudi Gipuzkoako
Foru Aldundiak gazteentzako
erreformategi bat egiteko
asmoa duela gure auzoan, eta
Irisasi etxean hain zuzen ere.
Arazoak dituen jende gazteari
zuzendua izango omen da. Ez
dakit egia ala gezurra izango
den, baina bati baino gehiagori
entzun diot komentario hau.
Hau egia bada, eta benetan
Aldundiak asmo horrekin aurrera
egiten badu, ziur honek sortuko
duela zeresanik auzoan. Baina

oraingoz arazorik ez den tokian
ez da komeni sortzea, ikusi egin
behar hemendik aurrerakoak.

Egia edo zurrumurru hutsa
izan, Irisasi etxeko okupek derri-
gor utzi egin beharko dute.

Badirudi dagoe-
neko etxea libra-
tzeko eguna jarri
diola Aldundiak.
Laster beteko
dira bi urte lehe-
nengo aldiz eto-
rri zirenetik eta
jende asko pasa
da etxe honeta-
tik, batez ere
uda sasoiari. Eta
Irisarirako bisita

aitezki, kanpotar ugari ere izan
da gure auzo txiki honetan. Izan
ere, toki ederra da Irisasi etxe
hau eta bere inguruak ere oso
leku egokiak dira lasai bizi ahal
izateko.



KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



Urtero bezala Santa Ageda eskean

Urtero otsailaren 4ko Santa
Ageda Eskea ohitura bila-
katu denez, aurtengoan ere
bertso eskolako kideak eta ikas-
tolako haurrak kalera irten ziren.
Ikastolakoak arratsaldeko
16:30ak arte jardun ziren eta
bertso eskolakoak, aldiz, arratse-
ko 19:00etatik aurrera kaleko
bazter guztietatik barrena kopla-
ka aritu ziren giro ezin hobean.
Makila eskuan zutelarik, lurra
astinduz jardun ziren bertso doi-
nua lagun zutelarik. Garai bate-
an makilen danbatekoek lur
berriari ongietorria emateko eta
uzta ona izan zezaten opatzeko
egiten zuten. Gaur egun asfal-
toa nagusi den gizarte honetan
alkitran eta hormigoi gehiago

izateko beste itzaropena ez da
gelditzen, berdegunea desager-
tzen ari baita. Santa Ageda
eskeko ohiturari dagokionez,
hedatuena eta zabalduena
ohiko bezperako kanta eskeare-
na da, baina esan behar
badaudela beste hainbat. Bat
aipatzekotan, Altsasun egiten
dena: kaleko mutil gazteak
kalez-kale irtetzen dira eta etxe-
ro opil bat oparitzen zaie,
beraiek makilan sartzen dutela-
rik. Bildutako opilekin afaria egi-
ten dute eta datorren urtean
mutil horietako bat neskalagun-
tzen hasi bada ez du ateratzeko
eskubiderik.

Santa Agedako kantu-kantak
albo batera utzirik, larunbatean

“extralurtarrak” iritsiko dira herri-
ra. Arratsaldean zehar ihauteri
eguna aprobeztatuaz, poteoan
eta gero afaritan izango dira.
Beraien garraio tramankuluak
non aparkatzen izango dute
lanik handiena: lekua egokia
aurkitzen eta isunik gabe irte-
tzen. Marten hidrogenoa aurkitu
dutenez, gure planeta honetara
oxigeno bila etorriko dira honela
bizia eta derrigorrezkoa den ura
izan dezaten.



AGINAGA

Oskar Santamaria



Kanpai hotsak Aginagan!

Azkenean! Hala ere, gure aldarrikapen garrantzitsuena egiten hasi diren honetan Agingan ez da giro! Bai, bai... frontoia egiten hasi dira, baina gure eskola zaharra bota dutenetik, batek baino gehiagok pena ederra hartu du, bere umetako eskola egun batetik bestera haizeak eraman balu bezala desagertu denean.

Ikamikak hala ere ez dira bukatu, kontu ugari dabil gure herri honetan frontoiaren inguruan: frontoia nolakoa izango ote den, noizko bukatuko duten... denok Arrate tabernako leihotik, konponketa lanei bi begiak gaintetik kendu ere egin

gabe. Besteak beste, denen ahotan dabilen galdera garrantzitsuena honako hau da: San Praixkutarako frontoia izango al da? Ez dakit ba!

Azkenik, orain aginagatarrok gure nahia eta betiko ametsa betetzera doala ikusita, beste aldarrikapen batzuk pentsatzen jarrita gaude dagoene-



ko, beste urte batzuetan "tabarra" emateko usurbildarrei. Hasi preparatzen! Ja, ja, ja!

ZUBIETA

Olatz De Miguel



Elizaren ondoko bidegurutzeko ispilua

Zubietan trafiko seinale, ispilu eta horrelako gehiegirik ez dagoela gauza argia da, nahiz eta horrek ez duen kentzen kotxez bertatik ibiltzea gauza erraza izatea, batez ere oinezkoen kontua dela eta. Baina lehen, elizako bidegurutzetan bazegoen ispilu bat, Zerratik zein eskola txikietatik zetozenentzat baliogarri, izkina horretan ez baita ikusten beste aldetik kotxeren bat datorren. Elizako obrak hastearekin, ordea, bertako zutabea kentzerakoan berau ere kendu egin zuten, eta gerora ez dute berriro jarri.

Denbora pasa da eta ziurrenik behin edo behin, baten batek, hartuko zuen sustoren

bat, beraz, ez litzateke gaizki egongo ispilu bat jartzea aurrekoa zegoen toki berezuan. Hor geratzen da egina eskaera.

Bestetik, eta hainbeste urteren ondoren, ia bi hamarkada kontatzeraino, azkenean hasi dira Zubietako etxe berriak eraikitzen. Oraindik obren arrasto bakarra bidetik dagoen lurra eta zelaian mugitzen ari diren lurra izan arren, ziu-rrenik laster ikusiko ditugu lehen etxeen hormak. Hau guztia nola doan nik baino hobe jakingo du besteren batek, baina hainbeste itxarondakoa azkenean martxan dago. Ea erritmo ona hartzen duen!



Elkartasun Taldearen egitasmoak

Idatzi honen bitartez Usurbilgo Elkartasun Taldearen izaeraren berri ematera gatoz. Tartean despistaturik balego, Elkartasun Taldea Presoen eskubideak defendatzeko eta euskal presoen senitartekoei eta presoiei beraiei elkartasuna adierazteko sortua da. Elkartasuna adierazteko modu asko daude: eskutitzak idaztea, dispertsioaren ondorioz aurre egin behar izaten dieten gastuak direla eta ekonomikoki senitartekoei laguntzea, eta abar luze bat. Zuekin kontatzen dugu horretarako.

Gogoratuko zaretenez gure ekin-tzetako bat udaran martxan jarri genuen Elkartasun Tonbola izan da. Iniziatiba hau martxan jarri ahal izateko lehenik eta behin herriko komertzio, taberna, sagardotegi, jatetxe eta abarretara jo genuen.

Esan behar dugu, beraien apor-

tazio xumea bezain garrantzitsua jaso genuela.

Beraien aldetik Elkartasuna adierazteko modu bat izan zen hau, baina baita zuena ere, erantzun ona jaso baitu tonbolak. Ondorioz diru pixka bat bildu dugu eta beraien Euskal Herriratzea aldarrikatu. Esker aunitz denoi.

Beste aldetik sariak ematerakoan izan genituen atzeratzeak ulertuko zenituztelakoan gaude, gure eguneroko bizitza medio ezin baikara denera iritsi. Tonbolak eduki duen beherakadaren ondorioz bukatutzat ematen dugu ekimen hau. Geratzen diren sari apurak lehen aipatu ditugun sari emalleen baimenaz Tonbolaren antzeko beste ekimen bat aurrera ateratzeko erabiliko ditugu.

Bestalde sagardo garaia hasi

denez urtero egiten dugun moduan aurten ere barrikotea antolatzekotan gara. Barrikote hau Aitzaga elkartean egingo litzateke eta bertan ateratako dirua lehen aipatutako helburuak betetzeko erabiliko litzateke. Martxoaren 2an antolatuko genuke, beraz, denok gonbidaturik zaudete. Menua, zuen kapritxoak asetu nahian, aitzakiarik ez dezazuen jarri, hau izango litzateke: lehenik, makailu tortila betiko erara; ondoren tomate, piper eta abarrekin saltsan jarritako makailua, "kuriyoso eiña"; jarraian txuleta "earra" eta postretarako pantxineta txokolate beroz bustita, eta noski, nahi adina sagardo. Bukatzeko kafea eta kopa. Afari mundiala!

Presoen alde txotx !!

Elkartasun Taldea

Torturaren desagertzea landuz

Estatu espainiarrean torturak duen aurpegi beltza ager arazi nahi dugu lerro hauen bidez. Gaia aski ezaguna izan arren, azken urteetan egoera ez da batere hobetu, alderantziz baizik. T.A.T-k (Torturaren Aurkako Taldea) 2000. urtean bilduriko datuen arabera, 77 euskaldunek salatu zituzten tratu txar eta torturak euren atxiloketa inkomunikatuetan. Hauetatik, 55 izan ziren judizialki salaketa ipini zutenak, eta salaketa hauetatik jada 35 artxibatuak izan dira, instrukzioa aurrera eramateko frogarik ez dagoela argudiatu ondoren. Iaz, berriz, iraila arte ditugun datuak are larriagoak dira, 84 euskal herritar torturatuak izan dira eta dagoeneko 37 salaketa ezarriak daude. Salaketa ipini duten gehienek hizketaldia ez da entzuna izan, sendagile eta psikologoaren esanari ere ez diote kasurik egin, ez eta atxiloketen zaindaritza zutenekin galdetarik burutu. Salaketa jaso duten epaileek ez dute inolako fro-

garik egiteko agindu...Zenbat eta lehen artxibatu, arazo gutxiago.

Usurbilen ere ezagunak ditugu tortura eta tratu txarrak jasandako herritarren kasuak (azken 26 urteetan 28 herritar) eta espulsatua izanetan gero patu bera jasateko arriskua duen herritarrik ere bada.

Azken 26 urte hauetan etenik gabe errepikatu diren tortura eta tratu txar kasuak desagertze bidean ipini nahi ditu TAT-ek Euskal Herriari zuzenduriko ekimen soziala abian jarritz. Atxilotuei ezartzen zaien legegdiaren aldaketa ezinbestekotzat jotzen duen proposamen bat egin du talde honek, antolakunde internazional (Torturari aurre egiteko Europako eta Nazio Batuetako Komitea, Nazio batuetako Giza eskubideen Komitea,...) zein gobernuz kanpoko (Amnesty International,...) erakundeen salaketa eta arrazoitzeetan oinarritzen dena.

Euskal herritar zein eragile guztioi dagokigu Torturaren aurkako kontzientzia barneratzea, proposamena hedatzea eta tortura kasuak gogoriki salatzea Instituzio eta agintariei presioa eginez egungo legedi eta praktika alda daitezen. Gure hainbat eta hainbat herrikidek jasandako sufriarioak ez du konponbiderik, baina etorkizunean sufrikario hau inork jasan ez dezan posible da. Hau da gure buruari jarri diogun erronka, Euskal gizarteak duen erronka!!

Otsailak 13an Torturaren aurkako egunean, jarduera bortitza hau salatzeke arratsaldeko 8h00tan egingo den kontzentrazioan parte hartzea dei egiten dizuegu.

Eta datozen egunetan egingo diren mobilizazioetara ere dei egiten dizuegu.

TORTURARI STOP!!! DENON ARTEAN LORTUKO DUGU!!

Torturaren Aurkako Taldea

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Eguneko Zentroaren eraikitze-lanak uda baino lehen amaitu nahi dira

Uda baino lehen martxan izango da eguneko zentroa. Azken udalbatzan obren baldintza plegoak onartu ziren. Udarregi ikastolaren egoitza zaharrak jasoko du hirugarren adinakoei zuzenduriko zentro hau. Eraikin berdinean jada martxan dago haur eskola. Beraz, etorkizunean bi gune hauek bilduko ditu Kalezarko egoitza honek.

Egitasmo hau aurreko legealditik datorrela argitu digu Sebas Cardenasek, Batasunako zinegotziak. Gizarte Ekintzaren aholku batzordean aspaldi aurrikusi zen gune honen beharra.

Gizarte laguntzaileekin batera, aholku batzordeak egoeraren azterketa sakon bat egin zuen. Era berean, Foru Aldundiarengan ere aurkeztu zen proiektu honen egitasmoa. Hasiera batean 6 plazako zentro bat egitea planteatu zuen Foru Aldundiak.

Dena den, 12 izango dira eguneko zentroak eskainiko



Eguneko zentroaren hainbat lan dagoeneko aurreratuta daude.

dituen plazak, epe erdira eta luzera egon daitezkeen beharrei erantzun asmoz.

12 plaza horiek beheko solairuan kokatuko dira. Goiko solairua ere atonduko da ongizate arloan sor daitezkeen bestelako beharrei erantzun ahal izateko. Gune berri honen inguruan parke bat ere aurrikusten da.

Zer nolako zerbitzua eskainiko duen ikusteke dago orain-

dik. Kudeaketa nola egingo den ere zehazteko dago. Ez da argitu enpresa bat kontratatu beharko den ala udalak lanpostu berriak sortu beharko ote dituen.

Egoitzan sartzeko bete beharreko baldintzen arautegia ere zehazteko dago oraindik. Baina hau guztia eguneko zentroa ireki orduko argi egongo dela ziurtatu digu Sebas Cardenas zinegotziak.

Euskal Bizikleta eta Udalaren arteko akordioa erabatekoa da

Aurreko zenbakian aipatu bezala, Euskal Bizikletaren lehen etapa gure herrian amaituko da, ekainaren 5ean hain zuzen. Bigarrena ere Usurbildik irtengo da.

Euskal Bizikleta Kirol Elkarteak eta Udalak sinaturiko akordioaren arabera, Udalak 3.900.000 pezeta ordaindu beharko ditu (23.439,47 euro).

Euskal Bizikleta profesional mailako itzuli garrantzitsuenetako bat da.



Julian Eraso antolatzailea eta Jose Antonio Altuna alkatea, akordioa sinatzen.

1.084.141.407 pta / 6.515.800 euro

Aginagako frontoia, Kultur Etxea eta Zubieta, aurrekontuen ardatzak

Jada onartu dira 2002rako aurrekontuak. Lehenetasun nagusiak Aginagako frontoia, Kultur Etxea eta Zubieta izango dira. Oposizioak ez ditu udal-gobernuaren aurrekontuak babestu nahi izan. Zenbakiak argitu asmoz, Batasuna, EA eta EAJ alderdien balorazioak bildu ditugu. PSE-EEko ordezkaria, ordea, ez zen udalbatzara hurbildu.

Lehenetasun nagusiak arestian aipatu ditugu baina aurrekontuak bestelako inbertsioak ere aurrikusten ditu:

- Udaleko sarrera egokitu. Gaur egun, ezinduek udaletxera sartzeko arazoak dituzte eta hori sahistu nahi da ekimen honekin. Irutasun kaletik sarbide bat egin nahi da bi metro t'erdiko plataforma baten bitartez. Baldintza plegoak onartuta daude.

- Gizarte zerbitzuko bulegoak Txaramuto azpira doaz. Erregistro



2002ko aurrekontuak urtailaren 29an onartu zituen udal-gobernuak.

nagusia eta errolda udaletxeko beheko solairura pasako dira.

- Eguneko Zentroa. Pasa den urtean hasi ziren egokitze-lanak. Aurtengo uda baino lehen jarri nahi da martxan Eguneko Zentroa.

- Kultur taldeentzako tailer moduko gela bat Txaramuton.

Besteak beste, pintura, argazkigintza eta taila-ikastaroak jasoko ditu.

Gazteen arloari dagokionez, Miserikordia botatzen denerako, Udalak gazteentzako lokal bat egokitu nahi du. Behin betiko egoitza egin bitartean, Bake Epaitegiaren ondoan joango litzateke gazteentzako lokal hau.



AGINAGAKO FRONTOIA

Aurtengo aurrekontuan 156 milioi bideratu dira Aginagako frontoia eta urbanizazioa burutzeko. Era honetan, aspaldiko aldarrikapen bati erantzun nahi dio Udalak.

Eraikitze-lanak honez gero hasi dira eta San Praixkutarako bukatu nahi da frontoia. Bide batez eta pilotalekua egitearekin batera ere, plaza berri bat eta urbanizazioa ere egingo da.



KULTUR ETXE BERRIA

Eraikin berriak zerbitzu ezberdinak jasotzeko aukera eskainiko du. Agustin Lizasoren esanetan, "udaberrian hasiko dira obrak eta 18 hilabeteko epean zabaldu nahi genuke". Aurten 50 milioiko partida izango du.

Udala ari da promotore lanetan eta eraikuntza bide onetik gidatu asmoz, aparejadore bat arituko da koordinatzaile lanetan.



ZUBIETA

Aspalditik dator Zubieta biziberritzeko egitasmoa. Urte pilo batean asko hitz egin eta gutxi egin da. Batasunak, ordea, talde bezala Zubieta garatzeko konpromisoa hartua duela adierazi du Agustin Lizasok.

2001ean 25 milioi aurrikusi ziren urbanizazio lanak egiteko eta aurten 30 milioi bideratu dira Lizarragako bihurtzeko zein Aliriko zubiaren sarrera egokitu eta ur-sarea berritzeko.

Aurrera begira, proiektu bat egin dago Potxoenean. Agustin Lizasok dioenez, legealdi hau amaitu baino lehen lotuta utzi nahi dute gai hau.

EA eta EAJ/PNV, aurka

EA alderdiak aurrekontu hauei aurkako botua eman die. Eusko Alkartasuna alderdiaren esanetan, "lehenetsunik ez duen proiektu bat ahalbidetzen delako: Aginagako pilotalekua". Ekimen honek beste hainbat proiektu atzeratu eta etorkizunean egin daitekeena hipotekatuko duela uste du EAK.

Euskal Herritarrok alderdiarekin izenpeturiko hitzarmenean pilotaleku horren gauzatzea aurrikusi zutela ekarri zuen gogora. Baina EA ez dago ados erakitze-prozesuarekin ezta planteatzen diren dimensioekin ere. Zubietako pilotalekua eta futbol zelaian egin beharreko hobekuntzei lehenetsuna ematen die EAK. Kulturalari dagokionez, "Kultur Etxea, eta liburutegia berarekin atzeratzen joatea, Batasunaren lehenetsunetan ez egotea du esplikazio bakarra"; azaldu zuen udalbatzan Luis Mari Ormaetxeak.

Azkenik, Nazio Eraikuntzarako

zuzenduriko partida Udalbiltzara baino Udalbiltza-Partzuergora bideratua izango dela zehaztu zuen EAKo ordezkariak.

EAJ/PNV alderdiak ere antzeko argudioekin eman zuen aurkako botoa. Andoni Atxega zinegotziak personal gastuen igoera nabaria dela ohartarazi nahi du: "etxebizitzekin diru sarrerak handitu egin badira ere, herria hipotekatzen ari dira. Inbertsionetarako dirudik ez da geldituko plantilaren soldatak ordaindu behar direlako".

Aginagako frontoian egin den inbertsioa ere gehiegizkotzat jo du EAJ alderdiko kide honek: "aurrekontua handia da, baina zerbitzu gutxi eskainiko ditu. Gastua desproporzionatua da". Halaber, Kultur Etxearen eraikitze-lanak berandu hasi direla uste du.

Gastu sozialei dagokionez, diru gutxi aurrikusten dela dio Andoni Atxegak. Eta azkenik, Udalbiltzari eskainitako partida "Batasunak sortu duen Udalbiltzarako" dela dio Andoni Atxegak.

Funtsean, udal-gobernuak zehaztu dituen lehenetsunekin desadostasunean dago EAJ.

Imanol Ubeda

200 milioko mailegua eskatu du udalak

Estrainez, aurtengo jardueran 200 milioiko mailegua eskatu du Udalak. Diru-eskatze hori bi proiektu-kin lotu du Agustin Lizasok: Aginagako pilotalekuaren amaiera eta Kultur Etxearen eraikuntza. Hala ere, Udalaren zorpetze-maila ez dela kezkatzeko modukoa argitu nahi izan du. Legealdia hasi baino egoera hobean geratuko dela zehaztu baitigu Agustin Lizasok.

EA alderdia kritikoa azaldu da neurri honekin, "Aginagako proiektu neurrigabearen eta Askatasuna Plazan eginitako zorran oinarritzen" delako. Honek guztiak adosturik omen zeuden hainbat asmo atzeratzea suposatuko duela uste du EA-k. EAJ/PNV alderdiaren ustez Aginagako proiektuak Udala hipotekatu du eta diru-sarrerak handiak izanik gastua kontrolaezina dela nabarmendu nahi du.

2002ko gastuen aurrekontua	I. Kapituluak	II. Kap.	III. Kap.	IV. Kap.	V. Kap.	VII. Kap.	VIII.	IX.	X.	Guztira
Zerbitzu orokorrak	0	168.560	0	76.330	69.120	180.300	0	0		494.310
Hazienda-Udaltz.	0	23.430	85.220	0	3.010	0	0	418.020		529.680
Hezkuntza	0	59.740	0	65.530	30.050	0	0	0		155.320
Kultura	0	40.510	0	87.060	414.760	0	0	0		542.330
Kirola	0	0	0	279.050	937.580	30.050	0	0		1.246.680
Gaztedia	0	9.310	0	6.690	30.050	0	0	0		46.050
Gizarte Ekintza	0	55.940	0	117.230	96.170	42.070	0	0		311.410
Hastapen Tailerrak	0	35.260	0	1.800	1.800	0	0	0		37.060
Enplegua-Garapena	0	36.340	0	12.020	12.020	0	0	0		48.360
Hirigintza	0	63.950	0	102.450	102.450	0	0	0		166.700
Zerbitzu-obrak	0	385.310	0	81.750	81.750	0	0	0		504.710
Nekazaritza-Ingurug.	0	5.710	0	54.100	54.100	4.730	0	0		68.130
Euskara	0	37.180	0	36.280	36.280	0	0	0		106.720
Langilegoa	2.235.210	0	0	23.130	23.130	0	0	0		2.258.340
Guztira	2.235.210	921.240	85.220	706.690	1.892.270	257.150	0	418.020		6.515.800 EURO
Bakotzaren %	%34	%14	%1	%11	%29	%4	%0	%7		%100

Extralurtarrek girotuko dituzte aurtengo Iñauteriak

Extralurtarrak herriaz jabetuko dira otsailaren 9an, Iñauteri egunean. Iñauteriak hemen dira.

Dagoeneko prestaketa lanak egin dira eta orain jendearen partehartzea baino ez da falta. Igor Gorritik argitu digunez, festa antolatzeke hainbat bilera egin dira. Bilera horietan jendeak nahi duen gaia planteatzeko aukera du: "Aurten proposamen ezberdinak egin dira eta azkenean extralurtarrena aukeratu da".

Gaiak zerikusi handia du jendearen partehartzea neurtzeko orduan. Duela bi urte, esate baterako, Asterix eta Obelixen gaiak arrakasta handia izan zuen eta jende asko mozorrotu zen.

Eguneko lehen protagonistak



Asterix eta Obelix gaiak joko asko eman zuen.

umeak izango dira. Extralurtarren desfilea, ordea, 18:00etan hasiko da koadrilen arteko ovni txapelketarekin. Segidan egingo den kalejira eta poteoa trikitilariak alaituko dute. Eta gaueko parranda ondo hasteko afaria ere antolatu da. Antolaketa batzordeak mahaiak eta edaria ipiniko ditu.

► Artzabalgo etxeen zozketa atzeratu egin da

Beste gai batzuen artean, Burtarrilaren 29ko udalbatza Artzabalgo etxeen zozketa ere aztertu zen. Teorian onartutako eta baztertutako en zerradak onartu behar zituen udalbatzak. Aurreko Noaia'n ere, zozketa otsailaren erdialdean izango zela aurreratu genuen. Baina azkenean Artzabalgo etxeen gaia udalbatzaren mahai gainean geratu zen. Hau da, erabakia atzeratu egin dela.

Ezinduei zuzenduriko etxebizitzak ondorenean ere ezinduentzat izatea ziurtatzeko aukera aztertu nahi da. Ezinduei zuzenduriko etxe kopurua bitik hirura igotzea proposatu da. Honek, ordea, oinarrien aldaketa ekarriko luke.

Promozio honek duen garrantzia dela eta, udalak auzi hau lehen baino lehen argitu nahi du.

Aurrerantzean Askatasuna Plazan egingo da asteazkeneroko azoka



Otsailaren 13tik aurrera azokak egoitza berria izango du: Askatasuna Plaza.

Orain arte anbulategi ondoan egin izan da ohiko merkatua. Azkena, irudian jasotzen dena, otsailaren lehen asteazkenean egin zen. Hilaren 13tik aurrera, beraz, kokagune berria izango du azokak.



JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05

Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Kale Nagusia 10
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15

LABE-GOXO
Ondareen eta zerbitzuen enpresa

Iñaki Eizagirre: “Telebistan errealismo itxura lortzea, zinean baino zailagoa da”

ETBn ikusten ditugun programa askoren dekorazioak Iñaki Eizagirre herri-tarrak diseinatu izan ditu. Horren lekuko ditugu, Funtzioa, Hau da hau, Txirri Mirri eta Txirribiton, Beni eta Marini, Balinda, Hitzetik Hartzera, Argiñano... eta bere azken lanak Barrebusa, Sorginen Laratza eta Date el bote! izan dira. Telebiziaz gain, Euskal Herrian errodatu diren hainbat pelikuletan ere lanean aritu da. Eszenografo baten lana zein den jakin nahian, beregana jo dugu.

Zein izan zen zure lehen lana?

Nire lehen lana Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoekin egin nuen, 20 urte nituela. Amona Martxelonen ipuinak ilustratzeko marrazki batzuk egitea eskatu zidaten telebizitarako. Lan horretan urtebete egin ondoren, pailazoen dekoratu baten diseinua egitea eskaini zidaten. Eta era honetara ekin nion lan profesionalari.

Zer dela eta aukeratu zenuen bide hau?

Umeak ginela, “Bibioblus” izeneko autobusa etortzen zen Usurbila. Bertan zineko liburuak, zinean efektu espezialak egiteko gidaliburuak, marrazki bizidunak nola egin irakasten zuten eta hantxe ibiltzen ginen. Gainera, eskenatokia, antzerkia, zinea... beti gustatu izan zaizkit.

Telebiziaz gain, beste hainbat tokitan ere ibili izan zara lanean.

Telebizistan lanean hasi baino lehenago, beste lan mota batzuk ere egin nituen; dekoratu txikiak batez ere, Lasarteko Folklore jaialdia, esaterako. Telebizitako lana, gainera, oso puntuala izan ohi da, hori dela eta, beste hainbat lanetan



murgildu beharra izan dut. Euskal Herrian egin diren bost filmetan egin dut lan. Antzerkian oso gutxi.

Film batean zein da zure lana, zehazki?

Filmaren gidoia ematen didate, eta horren arabera barruko eta kanpoko dekoratuak sailkatu eta zerrenda egiten dut; lokalizazioak bilatu, kale 1, kale 2, kale 3... pertsonai baten etxea, bestearen etxea zein izango den zehaztu... Esate baterako, epokako zerbait bada, kaleak eta abar garai hartara egokitu, dekoratu bereziak behar badira estudio batean haiek diseinatu... Orokorrean, film bateko zuzendaritza ekipoaren beharrak nire gain hartzen ditut.

Zure lanari dagokionean, ze ezberdintasun dago zinea eta telebizitaren artean?

Film batean dekoratuak fotografikoagoak dira, alegia, pelikula batean argi gutxi izanik ere filmatzen da. Adibidez, gauzak girotzean, zahartuz, zikinduz eta abar, argi gutxirekin errodatu daitekenez, girotze lan hori oso ondo islatzen da. Baina, telebizitan, gezur itxura handiagoa hartzen du. Telebizitan oso zaila da errealismo itxura lortzea.

Non nahiago duzu lan egin?

Biak oso ezberdinak dira. Zinean presio eta ardurua handiagoa duzu. Gainera, grabazioak eta planak egun batetik bestera sarritan asko aldatzen dira. Hurrengo egunerako planifikatuta zenuen dekoratua agian aldatu egin behar duzu, eguraldiaren arabera adibidez.

Momentu honetan, zertan zabilta?

Decogarden programan. Zuzendariordea naiz eta lana zabalagoa da; testuak zuzendu, grabazioak koordinatu, dekoratutako etxeak ikusi, aukeratu...

Anekdotaren bat edo beste izango duzu kontatzeko.

Gernikako kiroldegian ari ginen programa bat grabatzen pailazoekin. Tarta batek eztanda egin behar zuenez, lehergailu txiki bat jarri genuen, baina ez zen lehertu. Pailazoek ez zekiten zer egin, inprobisatzen erabat denbora pasatzeko. Tarta barrura sartu zuten berriro montatzeko. Nik, normalean, beste bi edo prestatuta izaten ditut, baina kasu horretan ez nuen ezer. Nola edo hala, gidoitik gehiegi atera gabe, egin nuen zerbait.

Agurtzane Solaberrieta



Aitor Bautista

Kalezar

Gustatzen zait baina ez dut mozorrotzeko ohitura. Festa polita da eta kalean dagoen giroa atsegin dut baina kalez jantzita atera ohi gara. Batzutan Tolosara joan izan gara, baina batez ere, hemen geratzen gara.



Iñaki Uli

Txikiardi

Gazte denboran mozorrotzeko ohitura bage-nuen. Donostian eta batez ere Tolosan ibiltzeko ohitura genuen. Baina, gaur egun ordea, ez. Orain gehien bat haurrengatik bizi ditugu, ilusio handiarekin ikusten zaie bai ikastolan, bai etxean...



Arantxa Garcia

Santuenea

Beno, gogokoa dut festa baina ez dut mozorrotzea gustuko. Donostiara joaten gara hemen festa, batez ere, gauzez egiten delako. Eta Donostiara berriz umeengatik joaten gara, karrozak ikusi...



Iñaki Berasarte

Irun

Gustatzen zaizkit Iñauteriak baina orain ez dut Iñauterietan parte hartzeko ohiturarik. Gazte denboran mozorrotzen ginen baina orain ez.



Rufi Dominguez

Santuenea

Bai, gustatzen zaizkit. Ezberdina da, betikoa alde batera uzteko aukera eskaintzen dizu. Eta normalean mozorrotu egiten naiz. Lasartera joan izan gara baina normalean hemen geratu ohi gara.



Jose Mari Martinez

Kalezar

Bai, guk beti parte hartu izan dugu. Dena den, lehen gehiago murgiltzen ginen festan. Orain umeak ditugunez beste era batean bizi ditugu. Era pasiboan bizi ditugula esango nuke.

Lehen beti mozorrotzen ginen baina azken urteotan umeak direla eta, jada utzita dugu ohitura hori. Gu beti kanpora joan izan gara. Tolosara, Donostiara, Andoainera ere bai...

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
I N S T A L A K U N T Z A K

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

Otsailaren 13an, arratsalde osoan doaneko kontsulta
MARIA DIAZ FERNANDEZekin: NATUROPATA,
IRIDIOLOGA-DIETISTA

- Hileko eta azaleko arazoak, psoriasis, alergiak,
zirkulazio-arazoak, pisuaren kontrola....

Ordua aldeaz aurretik eskatu 943 36 28 87

Urbil merkatal zentroa euskaldundu nahi da

Urbil merkatal zentroan euskararen egoera normalizatu nahi da. Duela gutxi egin diren azterketen arabera, lan asko dago egiteko. Udala Urbil merkatal zentroko arduradunekin ari da hizketan. Gaur egungo egoeraz kezkatuta, epe erdira euskararen presentzia handitu nahi da.

Jakin izan dugunez, Urbil merkatal zentroak plangintza moduko bat aurkeztu berri dio Udalari. Udal ordezkariak, ordea, plan hori sakontzeko eskaera egin dio Urbilgo bozeramaleari.

Arestian aipatu bezala, bi dira egin diren azterketak, biak Emun Lana Euskalduntzeko Kooperatibak eginikoak. Elebitasunerantz eman diren urratsak aipagarriak badira ere, egoera ez da egokiena.

Hipermerkatuari dagokionez,



Urbilen asko dago egiteko.

erdal hitzunen kopurua handia dela ondorioztatu da. Langileen ia heren bat erdal hitzuna da eta azterketak dioenez "euskararentzat, zerbitzu hizkuntza bezala aztertzean, muga handia suposatzen du honek".

Galerietan egindako azterketari erreparatu, gunehorretan ere asko dago egiteko.

Igeldoko sutea gertutik ikusi ahal izan genuen

Nork esango luke, suteak negu erdian! Egia esateko, aspaldi txoratu zela edo txoratu genuela eguraldia. Hainbatetan udaberrian gaudela dirudi. Hainbesteko aldaketen artean, ez da harrizkeo modukoa urtarrilean suteak ikustea. Argazkian ageri dena, ordea, otsailaren lehen egunekoa da. Igeldon eman zen sutea itzaltzeko haizeak ez zuen gehiegi lagundu.



Zakur batzuk kezka eragin dute herrian

Azken bolada honetan arazo dezente izan dira zakurrekin. Zainketa kontuez gain, kozka kasuak ere eman baitira. Gutxienez hiru kasu larri aipa daitezke. Guztien iturburu bi zakur dira: bata, Osinalde industrialdeko enpresa batean kokatuta dagoena; eta bestea, Txokoalde auzoko okupen esku dagoena.

Honez gero hainbat salaketa ipini dira eta espediente batzuk martxan ipini dira. Sententziak oraindik ez dira behin betikoak, errekursoak aurkezteko aukera dagoelako oraindik, baina isunak jarrita daude.

Osinalde industrialdeko enpresa bateko zakurrak

buruhauste dexente eman dizkie hainbat herritarri. Osinaldekoa aspalditik omen dator. Enpresako zaintze-lanetan dagoen animalia hau aske ere ibili ohi da eta hainbat kalte eragin ditu. Hiru kasuengatik espediente ireki zaio animalia honen jabeari. Eta kasu bakoitzeko 150.000 pezetako isuna ipini. Baina kexak gehiago izan dira.

Txokoalden ere antzeko egoeran daude. Bertan bizi diren okupen zakurrak beldurtuta ditu auzotar gehienak. Zakur honen jabeari ere espediente ireki zaio: zakurrak artalde bati eraso egin eta hiru ardi akatu zituelako eta txirrindulari bati ere eraso egin ziolako. Bi kasuengatik salatua izan da animalia honen jabea. Antza

denez, azken bolada honetan gutxi dira Txokoaldeko pista lasaietan paseatzera ausartzen direnak. Oinezkoak zein txirrindulariak atzera bota dira eta hori da larriena. Herritar askoren artean kalera irteteko beldurra nagusitu egin delako.

Udaltzaingoa oso kezkatuta dago auzi hau berbidatzea ez baita lan erraza. Zakurrek araudia betetzen dute, txipa badute eta behar bezala erregistratuta daude. Jabeek zakurra edukitzeko eskubidea badute baina euren ardura ere bada animalia kontrolpean izatea. Egoera honen aurrean, kasu bakoitzeko salaketak jarri eta isunak jartzea baino ezin da egin oraingoz.



Heriotzak gutxitu arren, lan istripuen tasak oraindik altuak dira

Lazkoan egunero bi istripu larri izan ziren Hego Euskal Herrian. Heriotz tasa jaitsi bazen ere, ez da atsegina estatistikak dioena: hiru eguneha behin langile bat hilik. Lan ezbeharren kopurua, beraz, handia da. Honek langileen, sindikatuen eta enpresariaren kezka areagotu du. Urtez urte, errepikatzen den arazoan bilakatu baita lan istripuena. Honakoan langileen ordezkariengana jo dugu iritzia eske.

Denek arrazoi nagusi bat azpimarratu digute: lan baldintza kaxkarren ugaritzea. Batez ere, behin behineko lan kontratuarekin ari direnen artean.

Hego Euskal Herriko beste herri eta zonaldeetan bezalaxe, lan istripuen gaitza gertutik bizi dugu. Urte hasierakoa da prentsan irakurri ahal izan genuena: langile bat larri zauritua lan istripu baten ondorioz.

G. Encinas soldatzaileak Michelin enpresak kontratatutako Milaz enpresarentzat egiten zuen lan. Iazko azaroan lantoki berean azpikontrataturiko enpresa bateko langilea izan zen tailerretik bodegara erori eta zauritu zena.

Hain zuzen ere, lan baldintza hauetan ari direnen kasuak nabarmendu ditu Bittor Iribar-



Eraikuntza eta industria dira lan istripu gehien jasaten dituzten sektoreak.

reerrek, LAB sindikatuko ordezkariak.

Lan jakin batzuk egiteko lan-tegi askotan kanpoko langileak kontratatu ohi dira. Beraz, lanaren ezezagutza ohikoa da lantoki batera hurbildu berri den langile batentzat.

Baina kontratu motak ere zerikusi zuzena du lan istripuen zioan. Bittor Iribarrek azaldu digunez, "aldi baterakoak direnean ziurtasun eza nagusitzen da. Langileak kontratu finkoa nahi du eta prezioa handia izaten da". Egoerak baldintzatuta, langileak egin dezakeena baino gehiago egitera behartuta ikusten du bere burua.

Baina faktore gehiago ere

aitatu beharra daude. Eraikuntzan, esate baterako, lan egiteko beharrezkoak diren tresnak (arropa, herramintak...) ez dira beti erabiltzen.

Kontzientziazioa, beraz, landu beharreko gaia dela begibistakoa da.

Bittor Iribarrek aitortu digunez, horrelako ekimenak egin izan dira sindikatuetatik. Langileen kontzientziazioa bezain garrantzitsutzat jo du enpresariak egin beharreko lana: bete beharreko baldintzak betetzera behartuko balitz lan-istripu gutxiago egongo lirateke. Legeak aurrikusitako arau asko ez dira betetzen", adierazi digu LAB sindikatuko kideak.

Imanol Ubeda

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Unai Lataillade: "Futbolearen jolasteko ilusioa berreskuratu dut Ibarren"

Judoa eta, nola ez, eskubaloia izan ziren bere txikitako kirolak. Baina azken urteak areto-futbolearen egin ditu. Madrileren IVEF ikas-terera abiatu eta han hasi zen futbol-salan jokatzeko. 23 urte ditu eta honez gero curriculum polita osatu du: Madrigo Unibertsitatearekin lau urte egin ditu Zilarrezko Mailan eta Lehen Nazionalen. Orain berriro itzuli da zilarrezko mailara Aker Ibarra FS taldearekin.

Oiaro Kiroldegian ere ikusiko duzue begirale lanetan.

Nola hasi zinen areto-futbolearen?

Madrilen hasi nintzen. Judoarekin jarraitzeko zailtasunak izan nituen. Erresidentzian nengoela bi talde atera genituen: areto-futbolekoa eta eskubaloikoa. Unibertsitatearen arteko txapelketan ere jokatu nuen. Zortea izan nuen bietan talde politikak osatu zirelako. Unibertsitateak garai hartan Ohorezko Mailan talde bat zuen. Ni han nintzela kategoriaz jeitsi zen eta egoera horretan sartu nintzen goreneko taldean. Bat-batean Zilarrezko Mailan ari nintzen jokatzeko. Dena den, hurrengo denboraldian Lehen Nazionalera jeitsi ginen eta azken hiru urteak maila horretan egin ditut. Asko ikasi dut Madrilen.

Orain Zilarrezko Mailan zaude berriro.

Denboraldia hastear zela iritsi nintzen, irailaren erdialdean. Bi astetan entrenatzen aritu eta gero fitxa egin zidaten. Bigarren partidaren jada taldean nengoen.

Eta gustura al zaude Ibarren?

Bai, oso gustura. Jendea oso irekia da, oso jatorrak denak.



Madrilen egin ditu azken bost urteak baina berriro itzuli da herrira Unai Lataillade.

Etiketatu gertu nago eta gainera jokatzeko ari naiz. Ibarra iritsi eta jende euskaldunarekin topo egitea polita izan da.

Gainera, zeretik hasi naiz eta ilusio handiarekin nago. Urte txiki bat bezala nabil orain.

Egun duzun entrenatzailea, Juanan Rodriguez, lan asko eskatzen duen horietako da, ezta?

Asko eskatzen du baina normalean da. Kategoria horretan ezin duzu egun lasa hartu. Asteazkena ezik, egunero

entrenatzen dugu. Talde humila gara, aurrekontu handirik ez dugu eta ezin ditugu fitxaketa handiak egin. Horregatik lana egin beharra dago behar den maila eman ahal izateko.

Patal hasi baina orain hobeto zabilzate.

Nik hasieratik taldea nahiko ondo ikusi dut. Emaitzetan eman da aldaketa, orain hasi gara irabazten. Baina joko aldetik taldea beti ondo ikusi dut.

Imanol Ubeda

Peñagarikano ez da Urrezko Aizkoraren finalean izango

Finalerdietara sailkatzea lortu bazuten ere, otsailaren 17an jokatu den finalean ez dira izango Joxemiel Peñagarikano eta Joxejuan Barberena.

Donostian jokatu zen finalerdian bikote honek eskuratu zuen txanda libreko saioa. Buruz burukoan ordea Nazabal eta Lopez nafarrak nagusitu egin ziren eta baita laurak batera aritu zirenean ere.

Nahiz eta galdu, Joxemiel Peñagarikanok lan ona osatu zuen, txana librean eta buruz buruko saioetan batez ere. Baina azkenean emaitza argia izan zen: 11-4 Nazabal eta Lopezen alde.

Urrezko Aizkoraren finala Azpeitian jokatu da datoren otsailaren 17an. Aurrez aurre arituko dira Nazabal-Lopez eta Arrospide-Arria bikoteak.



Joxe Luis Arrastoa


 Langilea

 35 urte.

Buzoietako propaganda

Nork ez du entzun azken bolada honetan "Agenda 21" delakoaren inguruko zerbait? Jasangarritasuna, hazkunde orekatua, ingurugiroaren errespetua ... Modan dago. Udalak berak ere, ikerketa pare bat behintzat eginarazi ditu guzti honen inguruan.

Hala ere, orokortasuna ahaztu gabe, egunerokoan bizi dugun kasu bat planteatu nahi dut oraingo honetan: gure buzoiak lepo betetzen duen publizitate kontsumistarena. Gizarte kapitalista honek iraungo badu, saldu behar du; eta saltzeko erosleak behar ditu; eta erosleak lortzeko publizitatea ezinbestekoa du. Eta hortxe gaude gu, gizarte kontsumista honen sarean erortzeko tentatuz buzoietan sartzen dituzten propaganda ezinbestean jasoz.

Eta jasaten ari garen erasoak ez da nolana hikoak. Izan ere, gure buzoietan jasotzen dugun publizitate gora baitoa urtetik urtera. Hona hemen, esate baterako, kaxkoko etxebizitza batean azken urteotan egindako jarrai-penaren datuak:

1999. urtea: 4,150 Kg.

2000. urtea: 6,150 Kg.

2001. urtea: 7,100 Kg.

Neurketan aintzat hartu den propaganda, propaganda komertziala da. Nabarmena da 2000. urteaz geroztik izandako gorakada. Hau ere, besteak beste, Eroskik Txikierrdin zabaldu

duen Urbil Merkataritza Zentroari zor diogu ...

Herriko etxe kopurua kontutan hartuz, ateratzen diren zenbakiak ez dira txantxetakoak: 2001. urtean, batz bestea, 14 tona publizitate jaso da herriko buzoietan. Eta hauen papera sortzeko berriz, bi metroko 4.000 bat zuhaitz eta 90.000 litro ur behar izan dira. Beraz, publizitate hau moldatzeko gainontzeko osagarriak kontutan hartu gabe ere, ingurugiroan honek duen eragina nabarmena da.

Eta zoritxarrez, oraindik behintzat, banakakook ezer gutxi egin dezakegu honen aurrean. Izan ere, publizitatea inolako bereizketarik gabe sartzen baita buzoietan, jabearen nahia aintzat hartu gabe. Areago, buzoietan horrelako publizitaterik ez dela jaso nahi adieraziz oharra jarritakoan, banatzaileek kasurik egiten ez dutenean, edota oharra bera kentzen dutenean.

Europako beste zenbait herrialdetan, Kataluniako hainbat Udalek esate baterako, guzti hau arautua dute eta buzoietan publizitate kontsumista ez jasotzeko txartelak beraiek banatzen dituzte, araua betetzen ez duten banatzaileei dagozkien isunak ezarri. Hala, bakoitzak hautatu dezake, publizitate jaso ala ez jaso. "Agenda 21" delakoaren inguruan egiten ari den ahalegina aintzat hartuz, herrian horrelako zerbait egitea ez litzateke txarra izanen.



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

MAHUKA

BEHERAPENAK

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Lehiaketa



Zer da argazkian
agertzen den irudi
hau?

Asmatzaileen artean
bi pertsonentzako afaria
Zumeta Jatetxean

128. aleko erantzuna



Erantzuna:

Ezkerretik eskubira eta goitik behera:

1. Maider Errasti, Agurtzane Alkorta, Endika Zinkunegi, Nerea Mayoz, Noemi Gonzalez, Jon Agirrezabalaga, Aihert Goia, Ainara Lizeaga, Ainhoa Mujika, Nerea Uribe, Kepa Unanue.
2. Iker Manterola, Maialen Erauskin, Imanol Mendo, Haimar Zubeldia, Imanol Matxain, Sandra Lertxundi.
3. Unai Garcia De Eulate, Eider Retegi, Ametza Larrañaga, Zaloa Leoz, Urko Goikoe-txea, Zaloa Arnaiz, Izaskun Villena, Iñaki Sal-samendi, Intza Makuso.

Irabazlea

Aitziber Matxain

Saria

12 CDz osatutako "Mun-
duko musika" bilduma

DENBORAPASAK

Z	L	N	L	A	B	A	Z	A	Z	T	R	A	I	A	E	X	M
A	M	A	I	Z	T	A	U	E	T	N	U	I	E	R	I	T	X
R	B	I	A	O	S	R	S	T	U	X	A	T	A	T	D	U	X
G	J	O	I	E	S	T	L	Z	X	N	G	S	O	Z	N	T	E
E	O	S	T	Z	Z	X	I	A	L	O	A	A	M	A	U	E	T
K	R	T	R	N	E	U	T	B	N	L	S	G	I	B	A	R	Z
E	R	M	U	R	U	B	R	A	K	J	I	A	T	A	M	Z	A
X	O	U	O	A	N	I	N	L	E	X	L	S	T	L	I	O	E
M	M	A	A	T	M	T	Z	Z	L	E	I	I	I	E	A	A	A
S	L	N	S	O	E	A	B	Z	I	Z	G	L	M	T	L	E	O
N	N	U	X	T	U	G	T	E	N	N	M	I	M	A	E	L	R
S	R	T	S	E	S	Z	I	X	L	M	L	G	T	N	Z	L	U

Bila itzazu letra
zopa honetan
herriko 10
baserriren izenak

IGELTSERITZA

URDANTZI, C. B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarrak
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko en dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

HAUR JANTZIAK
MERKEALDIAK!



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

A genda

OTSAILAK 9 larunbata

● Iñauteri festa. 11:00 haur-jolasak. 18:00etan ovni txapelketa. Lehen saria, 150 euro. Bigarrena, 90 euro. Segidan, kalejira eta poteoa. Ondoren afora Plaza Berrian.

OTSAILAK 11 astelehena

● Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

OTSAILAK 14 osteguna

● Batasunako herri batzarra Aitzagan. 19:30etan. gai zerrenda: konponbide demokratikoen proposamena eta hauteskunde frantziarrak.

● Arratsaldeko 20:00etan pleno-aretoan jai-batzordeko bilera.

OTSAILAK 18 astelehena

● Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- ✎ Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943

366485 telefonora.

- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- ✎ Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- ✎ Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M^a Angeles)
- ✎ Galtzara-Gaña elkartearen bi garaje itxi daude salgai. Inork nahi badu dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 360 273 (Javier).
- ✎ Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 943 36 43 10.
- ✎ Pertsona bat hartuko nuke arropak garbitzeko apopilo bezala. Gela individuala. Interesatuak deitu 943 36 57 37 telefonora.
- ✎ Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdina marra zuriekin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 37 19 75 telefonora. Gaeuz deitu.
- ✎ Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzaz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- ✎ Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. Interesatuak deitu 647 220 966 telefono zenbakira.
- ✎ Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perilita bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 telefono zenbakira.

KIROL DEIAK

FUTBOLA

✕ **Otsailak 9, larunbata**
- Eskualdeko Maila (E)

Atsedena.

- **Jubenilak (G)**

Atsedena.

- **Infantilak (G)**

Atsedena.

✕ **Otsailak 16, larunbata**

- **Eskualdeko Maila (E)**

Ostadar-Usurbil FT.

- **Jubenilak (G)**

Usurbil FT-Urola "B".

- **Infantilak (G)**

Udarregi-Aralar Intxurre.

ESKUBALOIA

✕ **Otsailak 9, larunbata**

- **2. Nazional Maila (G)**

Aloña Mendi-Usurbil KE.

- **2. Nazional Maila (E)**

Atsedena.

- **Jubenilak (G)**

Atsedena.

✕ **Otsailak 16, larunbata**

- **2. Nazional Maila (G)**

Usurbil KE-Urduliz.

- **2. Nazional Maila (E)**

Usurbil KE-Galdakao.

- **Jubenilak (G)**

Leizaran-Usurbil KE.

EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETAREN FINALA

✕ **Otsailak 17, larunbata**

- Oiardo kiroldegian

- goizeko 11etan

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Herriari buruzko ikerlanak martxan jarri nahian

Aurten ere Noaua! Kultur Elkarteak Usurbilgo herriari buruzko ikerlanak egiteko deialdia plazaratu nahi du. Aurtengoak, ordea, badu berrikuntzarik. Izan ere, Udalarekin elkarlanean, egitasmo berri bat jarri nahi dugu abian.

Deialdi zabala egin ordez, aurretik Udalak eta Noaua! Kultur Elkarteak aldeztu aurretik erabakiko du ikergaia, baita egilea ere. Baina, horretarako herritar guztien laguntza eskatu nahi dugu. Izan ere, ikergai posibleen zerrenda osatu nahi baitugu.

Ikerlana edozein zientzia alorrekoa izan daiteke: historia, soziologia, biologia, kultura, komunikabideak, ingurugiroa... baina, beti ere Usurbilgo herriari buruzkoa eta euskaraz.

Ikergai bilduma egiteko Kultura Aholku Batzorde berezi baterako deia egin nahi dizuegu herritar guztioi: **otsailaren 23an, goizeko 11:00 udal-aretoan.**

Bertan herritar orok aukera izango du gaiak proposatzeko eta bere iritzia emateko. Berritri diogu, edozein gai planteatu daiteke ikerketarako. Era honetara, herritarren iritzia eta aprotazioak jasotzeaz gain, bide emango digu Usurbilgo herriari buruz egin daitezkeen ikerlan-proiektu posible guztiak zein diren jakin ahal izateko. Horrela, zerrenda bat osatuko litzateke, eta hurrengo urteetarako ere gaiak finkatuta egongo lirateke.

Bilera honetan ere, gai bakoitzaren egileak zein izan daitezkeen jaso nahi ditugu. Beraz, gairekin batera egilea ere nor izan daitezkeen zehaztuta ekaritzea proposatzen dizuegu.

Honen inguruan informazio edo zehaztasun gehiago nahi izanez gero, edota otsailaren 23an etortzerik izango ez bazenu eta interesik baduzu, deitu lasai Noaua!ko telefonora (943 36 03 21) edota email bat idatzi.

► Helbide elektroniko berria dugu

Hemendik aurrera Noaua Kultur elkarteak bi helbide elektroniko izango ditu; bata, orain artekoa, noaua.k.e@euskalnet.net eta, duela astebate martxan jarri gneuen berria, hots, noaua@topagunea.com.

Bertan lan egiten dugunok honako hau eskatu nahi dizuegu; testua edota zuen iradokizuna, eskutiitza... aldizkarirako baldin bada orain arteko helbidera bidaltzea eta kultur elkarterako baldin bada helbide berrira bidaltzea.

Bitartean aipatu, datorren aletik aurrera Noaua! hamaboskaria Noaua!ko web orrialdean ikusi ahal izango duzue. Aurrerapen bat baino ez duzu hau, hurrengo aldizkarian xehetasun gehiago emango dizkizugu.

► Eman ezazu zure iritzia inkestan

Azken zenbakiarekin batera, galdetegi bat banatu genuen. Hamaboskariaren kalitatea hobetzea da gure helburua, hau da, informazioaren eta irudiaren tratamendua, edukia, diseinua... hobetzea. Hori dela eta, datozen hilabeteotan egin nahi ditugun aldaketei begira, aldizkariari buruz duzun iritzia jaso nahi dugu. Horretarako, inkesta hau prestatu dugu, zuen proposamenak, iradokizunak eta kritikak eza-gutu asmoz.

Guztion artean Noaua! dui-nagoa eta hobeagoa argitaratu dezakegulakoan gaude, herritar batzuen begiek gutxi batzuen begiek baino gehiago ikusten dutelako.


koadernatu 2001eko Noaua! guztiak

Zein dira eman beharreko pausok?

✘ Hartu 2001. urteko Noaua! hamaboskariaren ale guztiak (104-126) eta aurkibidea eta joan zaitez Noaua! Kultur elkartearen egoitzara, Laurokera edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 2001. urteko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko esan.

✘ Noaua! Kultur Elkartearen bazkide zaretenok azala doan izango duzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea, bazkide eta bazkide ez zaretenok berdin ordaindu behar duzue.

✘ Aleren bat falta bazaizue etorri gure egoitzara; bazkideok doan eta, besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.



104-126 zenbakiak

Udarregi Ikastola



PARTAIDE
Ikastolak



Matrikularia epa:

Otsailaren
18tik
Martxoaren
1a arte

- Haur hezkuntza
(2-6 urte)

- Lehen Hezkuntza
(6-12 urte)

- Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza (12-16 urte)



ORDUTEGIA:

- Goizez: 10etatik 11etara
- Arratsaldez: 15:30etatik 16:30etara

Telf: 943 36 12 16